

BASELAIZAK ETA ERROMERIAK

Erriaren oiñarrian

Udea urreratu jaku eta udeagaz batera gure erri ta auzoetako jaiak eta erromeriak. Giro orretan gogoratzen doguz gure ermita edo baseleizak eta eurretan irudia dauken santuak.

Gure errigintzaren oiñarria Gernika'ko edo beste toki batzutako batzarrak izan dirala esan da, eta, nire ustez, beste gauza bat argitu bear dogu: Zelako artu-emonak izan dan erriaren edo eleiz-atearen eta auzoen artean, eleizatearen eta kofradien artean.

Kofradiak osotzen ebezan etxeko jaunak edo "fogeradunak" eta eurak aukeratzen ebezan bear ebezan serbitzailleak, esaterako maiordomuak eta basozaiñak. Auzo-laguntza ori txandaka egiten eben, gitxienez maiordomutza. Jakiña da ez zirala auzoko guztiak fogeradun, etxedunak baiño ez, etxea alogorean euketak euren eskubideak eukezan,ugarria batzeko, frutuak ekarteko, abereak abarotarra eroateko ta abar, baiña ez ziran leiñargi, ez ziran "hijo-de-algo" edo "hidalgo" eta ez euketen autarkirik, ez erri eskubiderik.

Kofradiak Eleizateakaz eukezan artu-emonak ez dauz iñok be argitu, baiña ba-dago or billaketa eginbearra. Agiriak eta liburuak be, gitxienez XVI gizaldia ezkerro, ugari dagoz.

Jabetza

Norenak ziran, eta dira, baseleizea ta bere esku egozan baso, etxe ta soloak? Nire ustez eta zalantza barik, fogeradunenak, kofradiarenak. Eta ondasun orreik iñoz saldu ba'ziran erosleenak. Jakiña da, sarritan eta Erregearen aginduz ondasun orreik saldu ziranean, eurak barriro eskuratu ebezala. Birritan dira ba eurenak.

Baiña emen beste galdera bat egin bear da: Zetarako? Ez dago orretan ba zalantzarik, nire ustez, baseleizea zaintzeko eta bertan emon bear dan jaun-gurtza edo kultoa emoteko. Oraindiño be, geienetan maiordomu bein betiko geratu danak olako eginbea-

rrak izaten dauz: Jai egunean goisaltzeko janariak eskiñi, baseleizako gauzak zaindu, kanpaiak jo, eta abar.

Gaur Giroa

Gaur kofradiak erdi-aiztuta dagoz, toki batzutan izena be galdu dabe, beste batzutan indartsuago dagoz.

Batzutan ermitea bera be galdu egin da, esaterako Mungia-ko San Anton-en. Beste batzutan galtzeko arriskuan dago, eta ez goaz izenik esaten. Beste batzutan arazoa bideratu da, esaterako Mungia'ko Magdalena'n. Eta beste batzutan orretarako bidean doaz. Auzoko guztien egibearra da arazo larri au bideratzea eta argitzea eta ez basamortuko oillarren antzera burua egapean sartu eta eriotzeari itxaron.

Baseleizea bera zaindu

Baiña sarritan ez da gauza erreza izaten arazoa bideratzea eta ori jazoten danean, danaren gaiñetik, baseleizea bera zaindu bear da. Kofradiarena dala? Konpontzeko eginbearra daukela? Baiña fogeradunak zor bat dauke gitxienez argi dagoana: Baseleiza aretan orain-artean egin diran eleizkizunak egiten iztea. Ori ukaku-eziñeko zorra "servidumbe" da, ori eta oiturea izan dan geiago be bai, esaterako dantzarako zelaia iztea ta abar. Eta ori orrelan izanik, fogeradunak batera dirala, auzo guztiak baseleiza konpontzea be onartzeko gauzea. Gaiñera orretarako laguntzeko gertu egoten dira, oraingoz, Aldundia ta Udal-Batza; eta Eleizea, jakiña, al dauan neurrian.

Esku-lana auzokide guztiak egitea, orretarako laguntza aundia izaten da.

Arbasoengandik artu doguna, ordorengoai itzi dagiegun, al ba'da obetuta.

OLAZAR'tar Martin'ek